

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 2009/408/EE ERABAKIA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2009ko maiatzaren 6koa, Globalizaziora Egokitzeko Europako Funtsa mobilizatzeari buruzkoa, Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen 2006ko maiatzaren 17ko Instituzio arteko Akordioaren 28. puntuari jarraiki. Erabaki hori aurrekontu-diziplinari eta finantza-kudeaketa onari buruzkoa da.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DECISIÓN 2009/408/CE DEL PARLAMENTO Y DEL CONSEJO, de 6 de mayo de 2009, relativa a la movilización del Fondo Europeo de Adaptación a la Globalización, de conformidad con el punto 28 de l Acuerdo interinstitucional, de 17 de mayo de 2006, entre el Parlamento Europeo, el Consejo y la Comisión sobre disciplina presupuestaria y buena gestión financiera» (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 132/10, 2009/5/29koa)
2009/408/EE Erabakia (EBren Egunkari Ofiziala, L 132/10, 2009/5/29koa)

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN

ERABAKIA

2009ko maiatzaren 6koa

Globalizaziora Egokitzeko Europako Funtsa mobilizatzeari buruzkoa, Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen 2006ko maiatzaren 17ko Institutuzio arteko Akordioaren 28. puntuari jarraiki. Erabaki hori aurrekontu-diziplinari eta finantza-kudeaketa onari buruzkoa da.

(2009/408/EE)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen Tratata aztertu dute,

Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak aurrekontu-diziplinaz eta finantza-kudeaketa onaz 2006ko maiatzaren 17an egindako Institutuzio arteko Akordioa ² aztertu dute, eta, bereziki, haren 28. puntua,

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1927/2006/EE Erregelamendua ³ aztertu dute, 2006ko abenduaren 20koa, Globalizaziora Egokitzeko Europako Funtsa eratzekoa, eta, bereziki, haren 12. artikuluko 3. paragrafoa,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Alderdi hauek hartu dituzte kontuan:

- (1) Globalizaziora Egokitzeko Europako Funtsa («Funtsa»), munduko merkataritza-ereduetan gertatzen diren egitura-aldaketa garrantzitsuen ondorioak jasaten dituzten langileei laguntza osagarria emateko sortu zen, bai eta lan-merkatuan berriz sar daitezen laguntzeko ere.
- (2) 2006ko maiatzaren 17ko Institutuzio arteko Akordioak funtsa mobilizatzeko aukera ematen du: hain zuzen ere, urtean gehienez 500 milioi euro mobilizatzekoa.
- (3) Espainiak, 2008ko abenduaren 29an funtsa mobilizatzeko eskaera egin zuen, automobilgintzaren sektorean gertatzen ari diren kaleratzeak direla eta. Eskaera horrek betetzen ditu 1927/2006/EE Erregelamenduko 10. artikuluko ezarritako baldintzak, finantza-ekarpenak zehazteari buruzkoak. Horrenbestez, Batzordeak proposatzen du 2.694.300 euro mobilizatzea.

(4) Horrez gain, Batzordeak proposatzen du funtseko 690.000 euro mobilizatzea, laguntza teknikorako, 1927/2006/EE Erregelamenduko 8. artikuluari jarraituz.

(5) Horrenbestez, funtsa mobilizatu behar da Espainiak egindako eskaerari finantza-ekarpena egiteko eta laguntza teknikoaren beharrari aurre egiteko.

ERABAKI DUTE:

1. artikulua

Europar Batasuneko 2009ko ekitaldiko aurrekontu orokorraren esparruan, 3.384.300 euro mobilizatuko dira konpromiso- eta ordainketa-kreditutan, Globalizaziora Egokitzeko Europako Funtsaren kontura.

2. artikulua

Erabakia *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratuko da.

Estrasburgon emana, 2009ko maiatzaren 6an.

Europako Parlamentuaren izenean,
Presidentea
H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean,
Presidentea
J. KOHOUT

² C 139 EO, 2006.6.14koa, 1. or.

³ L 406 EO, 2006.12.30ekoa, 1. or.